# Bestelako Xedapenak

## KULTURA SAILA

### 3125

AGINDUA, 2011ko maiatzaren 23koa, Kulturako sailburuarena, Izurtzako Arana jauregia (Bizkaia) monumentu kategoriako kultura-ondasun deklaratzen duena, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioko 148.1.16 eta Estatutuko 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondareari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena, onartu zen.

Izurtzako Arana jauregia (Bizkaia) kultura aldetik duen interesa ikusita eta haren kultura-balioan oinarrituta, eta indarrean dagoen legerian xedatutakoari jarraituz, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak jauregia Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko espedientearen hasiera eskatzea erabaki zuen 2010eko otsailaren 17ko Ebazpenaren bidez (martxoaren 16ko EHAA, 51. zk.).

Espediente horren administrazio-izapidean, lehen aipaturiko 7/1990 Legearen 17. eta 11.3 artikuluetan ezarritakoarekin bat, jendaurrean jarri zen espedientea eta interesdunei entzuteko epea ireki zen.

Horretarako legez ezarrita dauden izapideak bete ondoren, Luis Vidal Gutiérrez Ibarzabal jaunak eta Izurtzako Udalak alegazio-idazki bana aurkeztu dute.

Luis Vidal Gutiérrez Ibarzabal jaunak dio kotxetokia eta usategia egoera txarrean daudela eta, beraz, elementu horien izaera zalantzazkoa dela; gainera, duela urte batzuk eraitsi zen, bestelako lan batzuk egin zirenean, berez jauregiaren eremu babestua alde horretatik mugatu beharko zukeen horma bat, mugakide den lursailean zegoena.

Aipaturiko elementu horien egoera txarra dela eta, erantzun behar dugu beraien hondatzeak ez duela esan nahi jauregiaren monumentuaren zati ez direnik. Eraitsitako hormari dagokionez, ez haren kokalekuak ez haren estiloak ere ez dute aholkatzen horma berriz ere eraikitzea, ez baitauka eraginik babestu nahi diren elementuetan.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

### 3125

ORDEN de 23 de mayo de 2011, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe el Palacio Arana, sito en Izurtza (Bizkaia) como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, que regula los procedimientos de declaración de los bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista del interés cultural del Palacio Arana, sito en Izurtza (Bizkaia), fundamentado en su valor cultural, y a tenor de lo dispuesto por la normativa legal aplicable, resolvió incoar mediante Resolución de 17 de febrero de 2010, publicada en BOPV n.º 51, de 16 de marzo, el expediente para su inclusión en el Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco.

La tramitación administrativa del referido expediente implicó, de conformidad a lo previsto en los artículos 17 y 11.3 de la mencionada Ley 7/1990 y en las demás disposiciones concordantes, el sometimiento de dicho expediente al trámite de información pública y audiencia a los interesados.

Habiéndose dado correcto cumplimiento a los trámites legales establecidos al efecto, presentaron alegaciones D. Luis Vidal Gutiérrez Ibarzabal y el Ayuntamiento de Izurtza.

Don Luis Vidal Gutiérrez Ibarzabal alega que el estado de conservación de la cochera y el palomar es deficiente lo que pone en tela de juicio la naturaleza monumental de esos elementos, y que hace años se derribó, en el transcurso de unas obras, un muro sobre el terreno colindante con su propiedad que debiera ser el que determinase en esa parte la delimitación del ámbito protegido del palacio.

En lo que respecta al deficiente estado de conservación de las partes mencionadas, cabe contestar que el deterioro de las mismas no implica que no participen de la naturaleza monumental del palacio. En cuanto al muro derribado, ni su emplazamiento ni su estilo aconsejan una reconstrucción del mismo por no afectar a los valores que se pretenden proteger.

Izurtzako Udalaren iritziz, jauregiko lorategiak publikoa izan behar luke, eta udal planeamenduak aski izan beharko luke bertan egiten diren esku-hartzeek hura zaintzeko eta balioztatzeko. Halaber, eskatzen du mendebaldeko muga, errepidearekin bat egiten duena, ezar dadila eraikinetik 10 metrora doan lerro paralelo baten bidez, eta, era berean, iparraldeko muga, fatxada nagusiaren aurrealdeko bigarren mailako bidekoa alegia, ezar dadila eraikinetik 10 metrora doan lerro paralelo baten bidez.

Lorategiaren erabilera publikoa dela eta, esan beharra dago kultur antolamendu sektorialari jarraiki dagoen obligazio bakarra dela ondasunaren erabilerak haren kontserbazioa bermatu behar duela.

Ondasuna zaintzea eta balioztatzea udal planeamenduaren mendean uzteko alegazioari dagokionez, esan behar da ezen, Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legearen arabera, udal planeamendua berrikusi egin behar dela, bai eta monumentu-adierazpenak ezarritako babesari egokitu ere, eta, beraz, monumentu-ondasun horren babesa planeamenduaren mende uztea ez dator bat lurralde eta hirigintza antolamenduarekin.

Proposaturiko mugaketaren murrizpena dela eta, esan behar da soilik helburu urbanistiko batzuen argitan jutisfikatzen dela, eta helburu horiek ondasunak orain dituen lursail-itxitura mota biak kentzea ekarriko luketela –bata burdin-sarez egina, eta bestea opakua–, bai eta ondoan atxikitako lorategiaren babesa kentzea ere. Kultur antolamendu sektorialaren ikuspuntutik, kentze horiek ezin onartuzkoak dirateke eta, horrenbestez, helburu urbanistikoak berrikusi beharra dago, lursail-itxiturak mantentzea –edo, hala badagokio, berrezartzea– posible izan dadin, espedientean dagoen 1953ko Izurtza Elexalde 1/400 eskalako planoak jatorrizkotzat jotzen baititu itxiturok.

Ondorioz, ezetsi egiten ditugu bai Luis Vidal Gutiérrez Ibarzabal jaunak aurkeztutako alegazioak, bai Izurtzako Udalak aurkeztutakoak ere, eta, aldi berean, espedienteko dokumentazioaren arabera, espedienteari hasiera emateko ebazpeneko mugaketa egokitzea erabaki dugu, halako moduan non babes-eremuak jatorrizko lursail-itxiturak hartuko dituen, horretarako kontuan hartuta 1953ko otsaileko Izurtza Elexalde 1/400 eskalako planoak jasotzen duen trazadura.

Hori guztia dela eta, aipaturiko Legearen 17. artikuluan oinarrituz, Euskal Kultura Ondarearen Zerbitzu Teknikoek egindako txostena aztertu ondoren, eta Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen proposamena aintzat hartuz, honako hau

EBATZI DUT:

***Lehenengoa***.– Izurtzako Arana jauregia (Bizkaia) Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean inskribatzea, monumentu kategoriako kultura-ondasun gisa.

El Ayuntamiento de Izurtza considera que el jardín del palacio debería tener una vocación pública y que el planeamiento municipal sería suficiente para que las intervenciones en el mismo lo preserven y pongan en valor. Solicita, asimismo, que la delimitación oeste, que linda con la carretera, se establezca mediante una paralela trazada a 10 metros del edificio, y que la delimitación norte, la del vial secundario frente a la fachada principal, se establezca mediante una paralela trazada a 10 metros de la fachada principal.

En lo que respecta al uso público del jardín, cabe responder que el ordenamiento cultural sectorial no establece más que la obligación de que el uso del bien debe garantizar la conservación del mismo.

En lo referente a la pretensión de que sea el planeamiento municipal el que preserve y ponga en valor el bien, cabe contestar que, conforme a la Ley 7/1990 de Patrimonio Cultural Vasco, el planeamiento municipal debe ser revisado y ajustado a la protección establecida por la declaración monumental y que, por tanto, no es adecuado al ordenamiento territorial y urbanístico delegar en el planeamiento la protección de ese patrimonio monumental.

En cuanto a la reducción de la delimitación propuesta cabe decir que se justifica exclusivamente desde la obtención de unos objetivos urbanísticos, objetivos que pasan por la supresión de los dos tipos de cierres de parcela que el bien posee, uno con verja y otro opaco, así como por la desprotección del jardín vinculado. Desde el ordenamiento cultural sectorial esas supresiones no son admisibles y, por ello, los objetivos urbanísticos deben revisarse al objeto de hacerlos compatibles con el mantenimiento y, en su caso, con la reposición de los cierres de parcela que se consideran originales según el Plano de Izurza Elexalde a escala 1/400 del año 1953 que obra en el expediente.

Por consiguiente, procede desestimar las alegaciones presentadas tanto por D. Luis Vidal Gutiérrez Ibarzabal, como por el Ayuntamiento de Izurtza, y adecuar la delimitación incluida en la resolución de incoación, a la vista de la documentación obrante en el expediente, de forma que el entorno de protección declarado incluya los cierres de parcela en su situación original, siguiendo para ello la traza que se incluye en el plano de febrero de 1953, denominado Plano de Izurza Elexalde, a escala 1/400.

Es por todo lo que antecede y, a tenor de lo establecido por el artículo 17 de la mencionada Ley, visto el informe de los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco y a propuesta del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,

RESUELVO:

***Primero***.– Inscribir el Palacio Arana, sito en Izurtza (Bizkaia), como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

***Bigarrena***.– Ondasun horren deskribapen formala egitea, agindu honen I. eranskinean agertzen den mugaketaren arabera, II. eranskinean adierazitako eran, eta III. eranskinean baimendutako esku-hartzeen erregimenari jarraiki, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

***Hirugarrena***.– Agindu honen berri ematea Jabetza Erregistroan, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

***Laugarrena***.– Higiezina babesteko eskaria egitea Izurtzako udalari, udal hirigintza-planeamenduan sartuz.

***Bosgarrena***.– Agindu honen berri ematea interesdunei, Izurtzako Udalari, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailari eta Garraio eta Hirigintza Sailari, bai eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari ere.

***Seigarrena***.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Inskribatzeko den agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik izango du ondorioak.

***Bigarrena***.– Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar diezaiokete Kulturako sailburuari hilabeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salari bi hilabeteko epean, agindu hau argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 23a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

I. ERANSKINA

MUGAKETA

a) Mugaketaren eremua.

Mugaketak eraikin nagusia eta honako beste eraikinak eta ingurumaria hartzen ditu: Ekialdeko fatxadako biltegi-kotxetokia; «usotokia» deituriko anteparaaren ondoko beste eraikin baten hondakinak, eta barruko eta kanpoko lorategien arteko lorategi-gunea, barne sartuta urbanizazio-elementuak, esaterako lur-

***Segundo***.– Proceder a la descripción formal del mencionado Bien conforme a la delimitación que se indica en el anexo I, en los términos expresados en el anexo II, y al régimen de intervenciones permitidas del anexo III de la presente Orden, a los efectos previstos en la Ley de Patrimonio Cultural Vasco.

***Tercero***.– Comunicar la presente Orden al Registro de la Propiedad, según lo establecido en el artículo 26 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

***Cuarto***.– Instar al Ayuntamiento de Izurtza para que proceda a la protección de dicho inmueble contemplándolo en su instrumento de planeamiento urbanístico municipal.

***Quinto***.– Notificar la presente Orden a los interesados, al Ayuntamiento de Izurtza, a los Departamentos de Cultura y de Transportes y Urbanismo de la Diputación Foral de Bizkaia, así como al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

***Sexto***.– Publicar esta Orden en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Bizkaia.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– La presente Orden de inscripción surtirá efectos a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Segunda***.– Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, los interesados podrán interponer, en su caso, previamente recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de mayo de 2011.

La Consejera de Cultura,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

ANEXO I

DELIMITACIÓN

a) Descripción de la delimitación.

La delimitación incluye la edificación principal y las siguientes edificaciones y entorno: el almacén-cochera de la fachada Este; los restos de otra edificación ubicada junto a la antepara o pesquera denominada «usotokia» y el espacio ajardinado de los jardines interior y exterior, incluidos los elementos de

sailaren itxitura eta II. eranskinean deskribatzen diren zuhaitzak.

Horrenbestez, eremuak muga hauek ditu: ekialdean, kotxetokiaren eraikinaren kanpo-ertza, plazatxo pribatuaren kanpo-ertzarekin batera, eta «usotokia» eraikin txikiaren kanpo-ertza eta antepararen horma; hegoaldean, 35 metrora, Arana jauregiaren fatxadarekiko lerro paralelo bat; mendebaldean, BI-623 foru-errepidetik bereizteko jatorrizko harrizko horma, jatorrizko burdin-sareareki batera, jatorriz zegoen moduan jarrita –alegia, espedienteko 1953ko planoaren arabera–; eta iparraldean, eraikinaren iparfatxadarekiko lerro paraleloa, lursailaren jatorrizko itxiturak definitutakoa.

b) Mugaketaren justifikazioa.

Proposatzen den mugaketa justifikatzen da Izurtzako herriguneko Arana jauregiaren eta haren inguruko lorategi-espazioaren kultura- eta ingurumen-balioak babestu behar direlako.

Mota honetako egoitza-eraikin bakartuen berezko balioa zaintzeko eta balioztatzeko, lorategiaren mugaketak eta inbentariatutako kultura-ondasunaren balioztatzeak zera dakar: lorategiaren gunea definitzen duen lurzatiaren puska babestea.

Hori dela eta, mugaketak ez du soilik eraikina bera hartzen, ez bada ere haren ingurumaria, alegia, erakin-multzoa eta lorategi-gunea osatzen duen zuhaiztia.

urbanización como el cierre de parcela y los árboles que se describen en el anexo II.

Así, el área de la delimitación queda definida por los siguientes límites: al Este, el borde exterior del edificio de la cochera, junto con el borde exterior de la plazuela privada, el borde exterior del pequeño edificio «usotokia» y el muro de la antepara o pesquera; al Sur, una línea paralela a la fachada sur del Palacio Arana, trazada a 35 metros de distancia; al Oeste, la tapia original de piedra que conforma la separación con la carretera foral BI-623, junto con la verja original recolocada en su situación original según el plano de 1953 que obra en el expediente; y al Norte, la línea paralela a la fachada Norte del edifico definida por el cierre original de la finca.

b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores culturales y ambientales del Palacio Arana y de su entorno ajardinado emplazados en el núcleo de Izurtza.

La delimitación del jardín y puesta en valor del bien cultural inventariado, implica la protección de la parte de parcela que define el ámbito del jardín, a fin de poder preservar y poner en valor el carácter propio de este tipo de edificación residencial aislada.

Por ello, la delimitación establecida no incluye solamente la edificación propiamente dicha sino el área colindante sobre el que se asientan el conjunto de la edificación y la agrupación arbolada que organiza el espacio del jardín.




| | | | |
|---|---|---|---|
| ESKALA / ESCALA<br>20 10 0 20 Metros | EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO<br>KULTURA SAILA<br>Kultura Ondarearen Zuzendaritza<br>Kultura Ondarearen Zentroa<br>DEPARTAMENTO DE CULTURA<br>Dirección de Patrimonio Cultural<br>Centro de Patrimonio Cultural | | |
| | Planoa / Plano:<br>Arana Jauregiaren mugaketa | Lurraldea / Territorio: BIZKAIA | Data / Fecha: 05/11/2010 |
| | | Udalerria / Municipio: IZURTZA | Eskala / Escala: 1:1.000 |

II. ERANSKINA

DESKRIBAPENA

1.– Arana jauregia.

Multzoak, alde batetik, eraikin exentu angeluzuzen bat du, 24 x 15 metrokoa, behe-solairua eta bi goi-solairu eta estalkipeko solairua dituena; bestetik, kotxetoki moduan erabilitako beste eraikin bat, 15 x 7 metrokoa, behe-solairuaren profila duena, eta, azkenik, lorategi-gune libre bat, Mañaria ibaiaren eta BI-623 errepidearen artean kokatua. Eraikin nagusiak jauregi neoklasiko frantsestu eta erromantikoaren tipologia du.

Iparraldeko eta hegoaldeko fatxadak hareharrizko harlanduz eginak daude, eta bost bao-ardatz bertikal dituzte, erlaitz nabarmenen artean kokatuak eta eraikineko solairuetan bana ezarrita; estalkipeko solairuko banaketa-tartea gailentzen da, molduradun erlaitz handi baten gainean agerian, eta kiribilduren gaineko leiho-lerro bat du, lehen aipaturiko ardatz bertikalak errematatuz. Harresiko hareharrizko harlanduen burua, harrizko bost hostoko palmondo-hostoez apainduta dago, estalkipeko hegalpean hain justu ere.

Hegoaldeko fatxadak estilo inperialeko eskailera bat du, simetrikoa, lehenengo solairu edo solairu nagusi den horretatik eraketa erromantiko batez atzealdeko barne-lorategira jaisten dena.

Iparraldeko fatxadan, bestalde, eraikinerako sarbide nagusia dago, kanpoko burdin-sareko atetik iparraldeko fatxadako erdiko ardatzeraino fatxadarekiko perpendikularra doana; gero, alboetan bi koloma toskanar dituen atea zeharkatu behar da, non erdiko balkoi moduan erabiltzen den 50 cm zabalerako erlaitz horizontal bat bermatzen den. Balkoi horren gainean, molduradun ur-isurkin horizontal bat, eta haren gainean, 20 bat cm-ra, Ibargüen-Basozabal-Echaburutarren armarria.

Alboetako fatxadak ere hareharrizko harlanduzkoak dira, eta hiru bao-ardatz bertikal dituzte, erlaitz, ur-isurkin eta estalkipeko erremate segida berarekin. Ekialdeko albo-fatxadan lehen aipaturiko eraikinaren beste sarbidea dago, sukalde zabal batera zuzenean jotzen duena.

Jauregiaren bolumena teila arabiarrez egindako lau isuriko estalki batez bururatzen da, zeinaren eskuarialde ertaineko zurezko egitura ondo kontserbatzen den.

Funtzionaltasun aldetik, eraikina erdiko korridoreen bitartez antolatzen da: bana solairuetan eta kanoi-ganga formako beste bat solairu nagusian. Erdiko korridore nagusi hauetara iristeko, erdiko eskailera erabili beharra dago eta, solairuetako korridore hori-

ANEXO II

DESCRIPCIÓN

1.– Palacio Arana.

Agrupación constituida por un edificio exento de planta rectangular de 24 x 15 metros, de planta baja más dos plantas altas y planta bajocubierta, otro edifico con uso de cochera de 15 x 7 metros, con perfil de planta baja, y un espacio libre ajardinado, ubicado el conjunto entre el río Mañaria y la carretera BI-623. El edifico principal responde a la tipología del palacio neoclásico afrancesado y romántico.

Presenta, tanto en la fachada norte como en la fachada sur, ambas resueltas en piedra sillar arenisca, cinco ejes verticales de vanos, emplazados entre acusadas cornisas, una por cada planta del edificio emplazadas a la altura de cada planta y destacando la separación de la planta bajocubierta, la cual emerge sobre un cornisón moldurado y presenta una secuencia de ventanas apoyadas sobre volutas rematando los cinco ejes verticales anteriormente mencionados. El muro corona su fábrica de sillería arenisca con una sucesión de palmetas de cinco hojas resueltas también en piedra justo bajo el alero de la cubierta.

La fachada sur presenta una escalera de tipo imperial, simétrica, que desde la planta principal o primera desciende según traza romántica sobre el jardín trasero interior.

Por su parte, en la fachada norte, se aloja el acceso principal al edificio, que desde la puerta de la verja exterior se realiza de manera perpendicular a la fachada Norte hasta llegar al eje central de la misma y atravesar la puerta enmarcada por dos columnas toscanas que soportan una repisa horizontal de unos 50 cm de ancho con uso de balcón central. Encima de ese balcón un botaaguas moldurado horizontal, y sobre él, a unos 20 cm de distancia, el escudo barroco de los Ibargüen-Basozabal-Echaburu.

Las fachadas laterales también se resuelven con la misma buena fábrica de piedra sillar arenisca, y en ellas se alojan tres ejes verticales de vanos, con idéntica secuencia de cornisas, de botaaguas y de remates en el bajocubierta. La fachada lateral Este presenta el otro de los accesos del edificio, anteriormente mencionado, directo a la amplia cocina.

El volumen del palacio se cubre con una cubierta de cuatro aguas de teja árabe, con estructura resuelta en madera de escuadría media que se conserva en buen estado.

Funcionalmente, la edificación se ordena mediante pasillos centrales, uno por planta y el de la planta principal abovedado en cañón. A esos pasillos principales se accede por una única escalera central y, desde esos pasillos de planta, se da acceso a las habitaciones

etatik logela eta egongeletara jo daiteke, eta aldi berean gela horiek haien artean komunikatuta daude.

Behe-solairua biltegirako eta sukalderako erabiltzen da.

Lehenengo solairua edo solairu nagusia altueragatik eta logelen kalitateagatik nabarmentzen da, bai eta sabaietako apaindurengatik ere, tximinien egoera onagatik eta apaindura geometrikoak eta bi zur-mota dituzten zoruengatik.

Barne aldetik, hormak ongi kontserbaturiko iztukuzko estalki batez hornituta daude, eskailera nagusian bezalaxe.

Hutsarteetako burdineria burdinurtuzkoa da, eta arotzeriak, bestalde, sekzio oneko zurajea du.

Eskailera nagusiko baranda burdinurtuzko barraz osatua dago, zurezko eskudelekin. Lorategiko eskailera inperalak eraketa bera du, antzeko apainduraz hornitua, nahiz eta burdinurtuzko jantaz buruturik egon.

Errepide nazionalarekiko lursail-muga legez, eraikinak itxitura eder bat du, errepidearen maldari doituta, kareharrizko harlanduz dotoreziaz landutako mugarri ilara batez, haien artean altuera txikiko harlangaitz-horma ilaratuzko itxitura batez eta landare-moldura duten puntez burututako burdinurtuzko sare batez konektatuta.

Emaitza eraikin noble bat da, alde batetik eklektikotzat jo daitekeena hainbat joera biltzen dituelako, baina joerok eraketa neoklasiko batez, XIX. mendeko erromantizismoaren eraginarekin, ordenatzen dituena.

I. eranskinean definitutako mugaketak bi eraikin-gorputz hartzen ditu, eraikinaren alboan. Bata ekialdeko fatxadarekin aurrez aurre, harengandik aparte eta ondoko jabetzatik bereizteko hormari atxikita, Mañaria ibaiak hornitzen duen anteparaaren gainean, «usotokia» deitzen duten halako begiratoki txiki bat, alegia. Bigarren eraikin-gorputza kotxetokiarena da, harlangaitzezkoa, eskantzuetan hareharri gorrizko harlandu ederrez hornitua, bai sarrerako atetzarrean bai eraketa neoklasikoa duten fatxadako hutsarte guztietan. Eraikin nagusiarekin batera, sarbide nagusiaren kanpo-eremua osatzen du, eta biltegirako edo/eta kotxetokirako erabiltzen da.

2.– Eraikinari loturiko lorategia.

Arana jauregiko lorategia zuhaitz bakan batzuen eta haien arteko espazioen multzoa da, nagusiki eraikinaren iparraldeko fatxadan egon arren eraikin osoaren ingurumaria eratzen dutenak eta erakinari loturiko lorategi-gune itxi bat definitzen dutenak. Lorategira jotzeko bi sarbide daude, jauregiko bi solairutatik abiatuta: sarbide nagusia lehen solairuko erdiko espazioa malda leun batez barne-lorategiko solairuarekin

y a los salones, los cuales se comunican también entre sí.

La planta baja se destina a uso de almacén y a cocina.

La planta principal o primera destaca por la altura y la calidad de sus habitaciones, así como por la decoración de sus techos, por las chimeneas en buen estado y por los suelos de madera también decorados con motivos geométricos con dos tipos de madera.

Al interior, las paredes manifiestan un recubrimiento de tipo estuco que se repite también en la escalera principal y que se conserva bien.

La herrería de todos los huecos está resuelta en fundición de hierro. Por su parte, la carpintería está resuelta en madera de buena sección.

La barandilla de la escalera principal está resuelta con barras de fundición con pasamanos de madera. La barandilla de la escalera imperial del jardín presenta la misma solución con similar decoración aunque rematada con llanta de hierro fundido.

Como límite de parcela sobre la carretera nacional, el edificio presenta un hermoso cierre, que adaptándose a la pendiente de la carretera, se resuelve mediante una sucesión de hitos verticales de piedra caliza de sillería elegantemente trabajada, conectados por un cierre de pequeña altura de mampostería bien concertada y una reja de fundición coronada con puntas siguiendo motivos vegetales.

El resultado es un noble edificio que aunque participa del eclecticismo en cuanto que incluye diferentes tendencias, ordena estas dentro de una traza neoclásica con influencia del romanticismo del XIX.

La delimitación definida en el anexo I incluye dos cuerpos de edificación que se encuentran junto al edificio: uno frente a la fachada Este, separado de ella y adosado a la tapia de separación con la propiedad colindante emplazado sobre la pesquera o antepara que aprovisiona el río Mañaria y que es un pequeño mirador sobre el agua al que denominan «palomar»; el otro cuerpo de edificación es el de la cochera resuelto en fábrica de piedra de mampostería con inclusión de hermosos sillares de piedra arenisca rojiza en los esquinales, tanto en el portón de entrada como en todos los huecos de fachada dispuestos según traza ordenadora neoclásica. Conforma junto con el edificio principal el ámbito exterior del acceso principal, y está destinado a uso de almacén y/o cochera.

2.– Jardín vinculado al edificio.

El jardín del palacio Arana es una ordenación de árboles y espacios entre ellos que, aunque básicamente se ubican frente a la fachada Norte del edificio, conforman el entorno de toda la edificación, y definen un ámbito ajardinado cerrado vinculado a la edificación. El acceso al jardín se produce desde dos plantas del palacio: de forma principal desde la escalera que con suave desarrollo comunica el espacio

lotzen duen eskailera da; bigarren sarbidea, garrantzi gutxiagokoa, behe-solairuko erdiko espaziotik zuzenean komunikatzen da lorategiarekin.

Jada ez da gelditzen lorategiko elementu berezigarririk, hala nola altzari, iturri edo antzeko eraikuntza edo apaindurako elementurik. Edonola ere, erantsitako planoan definitzen den babes-inguruaren barruan lorategi erromantikoa dago, tamaina, edertasuna, adina eta kokapena dela-eta nabarmentzekoak diren hainbat zuhaitzez osatua. Honako genero eta espezietakoak, hain zuzen ere: Magnolia grandiflora; Laurus nobilis; Aesculus hippocastanum; Fraxinus excelsior.

III. ERANSKINA

BAIMENDUTAKO ESKU-HARTZEEN ERREGIMENA

1.– Multzoan –eraikinak eta lorategia– onartutako esku-hartze mota, oro har, A motako zaharberritze kontserbatzailea izango da, Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan definitutako esku hartzeen lehenengo azpimultzoaren barruan.

2.– Arana jauregiak duen babes-mailak eraikina osorik edo zati batean eraistea edo desmuntatzea debekatzen du.

3.– Baimendutako eraikuntzako esku-hartzeen helburua izango da, alde batetik, eraikina kontserbatzea, eta bestetik, erabilera bateragarriaren funtzionaltasuna hainbat obraren bitartez, bermatzea, betiere obra horiek eraikinaren elementu tipologikoak, formalak, egiturazkoak, eraikuntzakoak eta esanguratsuak errespetatuta.

Multzoaren balioekin bateragarria izango den berrerabilpenak honako hauek bete beharko ditu:

– Eraikin nagusia sendotu beharko du: bolumena, estalkiaren tipologia, itxiturak, leihozuloak eta beren moldurak, eta barne-egitura, jatorrizko material eta topologiarekin.

– Eraikina zaharberritu beharko da, jatorrizko tipologiaren eta probetxamenduaren arabera, jatorrizko bolumenaren barruan eta haren antolaera errespetatuta; izango duen erabilerari begira bete beharreko segurtasun, osasun eta segurtasun eta irisgarritasun baldintzak betetzeko egokitzapen teknikoak sartu beharko dira, betiere kultura-ondasunarekin era bateragarrian, eta haren kontserbazioa bermatuko da; luzetarako hormak eta zeharkakoak finkatuko dira; partzelaren jatorrizko itxitura berreskuratuko da; ahal den neurrian, barne-apaindura guztia eta aurreko materialak finkatuko dira, baita balkoiak, burdinurtuzko

central de la planta primera con la planta del jardín interior; y de manera menos principal, a través de una comunicación directa a nivel del espacio central de la planta baja.

No se conservan los elementos singulares del jardín, tales como el amueblamiento, fuentes o elementos constructivos o decorativos similares, no obstante, dentro del entorno de protección definido en el plano adjunto, se conserva el jardín romántico conformado por un grupo de árboles que destacan por su tamaño, belleza edad y emplazamiento. Corresponden a los siguientes géneros y especies: Magnolia grandiflora; Laurus nobilis; Aesculus hippocastanum; Fraxinus excelsior.

ANEXO III

RÉGIMEN DE INTERVENCIONES PERMITIDAS

1.– El tipo de intervención de rehabilitación autorizado para el conjunto –edificios y jardín– será en general, el definido como Restauración Conservadora tipo A dentro del primer subgrupo de tipos definido en el Decreto 317/2002 sobre actuaciones protegidas de Rehabilitación del Patrimonio Urbanizado y Edificado del Gobierno Vasco.

2.– El nivel de protección que afecta el edificio del Palacio Arana impide cualquier derribo o desmontado parcial o total en el mismo.

3.– Las intervenciones de construcción permitidas tendrán como fin, por un lado, conservar la edificación y, por otro, asegurar la funcionalidad del uso compatible, mediante obras que, en cualquier caso, han de respetar los elementos tipológicos, formales, estructurales, constructivos y significativos de la edificación.

La reutilización compatible con los valores del conjunto deberá:

– Consolidar el edificio principal: su volumen, la tipología de la cubierta, los cerramientos, los huecos de ventanas con sus molduras, y la estructura interior con el material y la tipología estructural originales.

– Restaurar el edificio principal según su tipología y aprovechamiento original dentro del volumen original y respetando su organización; incluyendo las adaptaciones técnicas de seguridad, de salubridad y de accesibilidad que sean necesarias para el uso al que se destine y que, en cualquier caso, deberán ser compatibles con el bien cultural y garantizar su conservación; consolidando los muros longitudinales y transversales; recuperando el cerramiento original de la parcela; consolidando en lo posible toda la decoración interior así como los materiales preexistentes, incluidos los balcones, antepechos de fundición y

karelak eta arotzeria eta leiho-ateak ere; lorategira joateko eskailera ere berreskuratuko da.

– Partzelaren gaineko esku-hartzeak gutxienez 1,50 m-ko enbor-perimetroa duten zuhaitz guztiak errespetatuko ditu.

– Bigarren mailako eraikinetan onartuko diren esku-hartzeak aipaturiko 317/2002 Dekretuko sendotzekoak eta/edo zaintzeko eta apaintzekoak izango dira, eta zutik dirauten jatorrizko egituraren zati osoak berreskuratuko dira.

carpinterías y contraventanas; incluyendo, además, la recuperación de la escalera de acceso al jardín.

– La intervención sobre la parcela del jardín mantendrá todos los árboles que tengan un perímetro de tronco igual o superior a 1,50 m.

– Las intervenciones autorizables sobre los edificios secundarios serán las de Consolidación y/o las de Conservación y Ornato del referido Decreto 317/2002 con recuperación de las partes completas de estructura original que se conserven en pie.